




"Elkarrekin" ekiteko unea

Lasarte-Oriako hainbat eragilek eta norbanakok erreferendumaren aldeko sinadura bilketa sustatuko dute / 3

TXINTXARRI

Kartzela eta gurasotasunaren testigantza eman du Fernandez Iradi-Fresneda sendiak / 6-7



SERIEA

Aniztasuna kudeatzeko

Eskualdeko udalak protokoloak eta ekimenak prestatzen ari dira etorkinei harrera egiteko / 8-9



Mendebaldeko Sarahako egoerari buruz hausnartzeko, dokumentala eta solasaldia / 4



BIDASOA XXI

Gipuzkoako selekzioarekin lehiatu diren igerilarien lan ederra, Gijongo Hiria sarian / 10



Irati Iribarrek irabazi du Jalgiko patata-tortilla, lehiaketako galdera guztiak ondo erantzunda / 16

Trasteleku eta gordelekuen alokairua Urnietan

TRASTELEKUAK

44€

2 m² / BEZa barne

GORDELEKUAK

97€

5 m² / BEZa barne

barnE

605713127

Igarategi Industrialdea 70. URNIETA
Bulegoa: Muebles Iturbe
barne.eus

Kultura eta Hezkuntzako dirulaguntzen epea

Lasarte-Oriako kulturaren sustapenerako eta eskola orduz kanpoko jardueretarako dirulaguntzak eskatzeko epea zabaldu du udalak. Horien onuradun izan daitezke interes orokorreko jarduerak garatzen dituzten elkarte edo zenbait erakunde

Txintxarri

Lasarte-Oriako kulturaren sustapenerako eta eskola orduz kanpoko jardueretarako dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik da, eta uztailaren 5era arte izango da horiek eskatzeko aukera. Udalak jakinarazi duenez, kulturaren sustapenerako eta zabalkundearen programetarako deialdiaren diru kopurua 9.430 eurokoa dela, eta, eskola orduz kanpoko edo izaera osagarriko jarduerak hezigarrien esparruko programetarako, berriz, 9.898,67 euro.

Dirulaguntzen onuradunak

Kulturaren sustapena eta zabalkundearen inguruko programei dagokien onuradunak izan daitezke Lasarte-Oriako interes orokorreko jarduerak garatzen dituzten elkarteak eta izaera juridikorik gabeko beste erakunde batzuk. Eskola-orduz kanpoko jardueren kasuan, berriz, onuradun izan daitezke eskola-orduz kanpoko eta gurasoen formaziorako interes orokorreko jarduerak garatzen dituzten Lasarte-Oriako eskoletako gurasoen elkarteak.

Udalak jakinarazi duenez, aurkeztutako proiektuen artean banatuko ditu dirulaguntzak, betiere deialdi horietako

baldintzak betetzen badituzte, eta jarraian adierazten diren balorazio-irizpideen arabera.

Aurkeztutako programaren edo proiektuaren ezaugarri gehienez ere 40 puntu emango dizkiote, honako alderdi hauek aintzat hartuta: pertsona onuradun edo parte-hartzaileen kopuruari gehienez ere 20 puntu; programak edo jarduerak egina duen ibilbideari eta errotze mailari gehienez ere hamar puntu; proposamen antzekoak dituen programen koordinazioa, talde-ekintzei, gehienez, hamar puntu.

Programaren edo jardueraren aurrekontuari, gehienez 40 puntu emango dizkiote, eta entitate eskatzailearen ezaugarriari, berriz, gehienez ere 20 puntu, baina honako alderdiak kontuan hartuta: entitatearen jarraikortasunari eta kaudimenari gehienez bost puntu; eta, programaren edo proiektuaren finantziario-tasa. Eskatutako dirulaguntzaren eta entitateak edo taldeak jarritako baliabideen arteko proportzioari, gehienez hamabost puntu.

Laguntzen zenbatekoa

Esleituko den dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa zehazteko irizpideak ere eman ditu udalak; azaldu du onartzen diren

eskabideek jasoko duten laguntzaren zenbatekoa zehazteko kalkuluak nola egingo dituzten.

Kopuru finkoak, laguntza bera bermatzen die deialdi honetako baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiei. Laguntza horren batura totala, gehienez ere, deialdi horretarako ezarritako zenbatekoaren %30 izango da. Bestalde, eskaera bakoitzaren balorazioa egingo da. Kasu horretan, irizpideetan seinalatutako kontzeptuetariko bakoitzaren balorazioaren baturak puntu-kopuru total bat emango dio eskatzaile bakoitzari. Deialdi horretarako aurrekontu totalaren %70 eskabide onartuetan lortutako puntu-kopuruaren totalaren artean zatituta aterako da ponderazio ekonomikoko indizea puntu bakoitzeko, eta hori eskatzaile bakoitzak ateratako puntu-kopuruarekin biderkatuta aterako da. Ebazpenerako proposamena eskatzaile bakoitzaren bi atal horien baturak osatuko du.

Justifikazio-kontuak aurkezteko azken eguna 2021eko irailaren 30a izango da. Urteko azken hiruhilekoan garatuko diren jarduerak edo programek 2022ko urtarrilaren 31 izango dute justifikazio-kontuak aurkezteko azken eguna.

ditu zentroak. "Frogatuak izan diren metodologia aktiboak eta tresnak erabiliko dituzte".

Usurbilgo Lanbide Eskolaren zikloetan izena emateko epea maiatzaren 31n zabalduko da, astelehenez, eta ekainaren 18an itxi, ostiralarekin. Matrikulatzeko edo zalantzak galdetzeko, 943 36 46 00 telefonora deitu, adkomunikazioa@lhusurbil.eus helbide elektronikora mezu bat idatzi edo www.lhusurbil.eus/web/ atari digitala kontsultatu dezakete interesatuek.

STEAM prestakuntza eskainiko du Usurbilgo Lanbide Eskolak

Curriculumeko zenbait arlotan sei orduko saioak eskainiko ditu zentroak, eskaintzen dituen ziklo guztietan

Txintxarri

STEAM gaitasunak (zientzia, teknologia, ingeniari, artea eta matematika) indartze aldera, Usurbilgo Lanbide Eskolak sei orduko errefortzua eskainiko du ikastetxean eskaintzen diren ziklo

guztietan. "Gero eta ikasle gehiagok aukeratzen dute Lanbide Heziketa; formakuntza osatzeko aukera eman nahi diegu, etorkizuneari unibertsitatean joan nahiko balute". Horretarako, Batxilergoan lantzen diren gaitasunak indartuko



Ana Urchueguia alkate ohia, artxiboko irudi batean. TXINTXARRI

"Aurrerapauso handia egin da gertaerak argitzeko bidean"

'Somoto auzia' delitua izan dela frogatzen bada, kasua argitzeko "konpromiso argia" adierazi du Udalak

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak adierazpen instituzionala kaleratu du. *Somoto auziaren* harira, Ana Urchueguia alkate ohiaren aurka kereila jarri zuen, eta horren gainean epaitegiek ebatzitako autoen berri eman du. Maiatzaren 10ean, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak onartu egin zuen udalaren errekurtsioa, auzia behin-behinean artxibatzearen aurkakoa. Kausa hori instrukzio epaitegiari itzuli zion.

Sei egun beranduago, hilaren 16an, Donostiako Instrukzioko 3. zenbakiko epaitegiak jakinarazi zuen "prozedura laburrekin jarraitzea" agindu duela, Somoto

auzian gauzatutako gertaerak "diru publikoen bidegabeko erabilera eta prebarkazio delituak" izan daitezkeelakoan. Akusazioei ahozko epaiketa eskatzeko idatzia aurkezteko epea ireki du.

"Aurrerapauso garrantzitsua"

Udalak, kereila jarrita, argitu nahi du gertaera horiek nolakoak izan ziren. Norabide horretan, "aurrerapauso garrantzitsua" eman dela uste du. "Somoto auzia delitua izatekotan, balizko irregulartasunak eta horietatik eratorri litezkeen erantzukizunak argitzeko konpromiso argia" adierazi du.



TXINTXARRI

Hezkuntza eta kudeaketa

Udaletik, eskolatik, herrigintatik... herri hezitzaileak sortzen eta Herritarren parte-hartzea politika publikoetan: zertaz ari gara, nola eta zertarako? izan dira Lasarte-Oriako EH Bilduk antolatutako Herrigintzen zikloko azken bi hitzaldiak.

Mahai inguruen bidez, herria egiteko moduez eta beharrez hausnartu dute bi astetan: sozioekonomia, jarduerak fisikoak, hezkuntza eta kudeaketa-eredua jorratu dituzte Mercero gunean zein osasun zentroko 2. solairuan.



Erreferendumaren aldeko sinadura bilketa bultzatuko duten norbanako eta eragileak, Mirentxun. TXINTXARRI

Indarrak batu, burujabeago izateko

Lasarte-Oriako eragile eta norbanako ugarik bat egin dute Gure Eskuk eta beste zenbait sustatzailek abian jarri duten 'Hamaika Gara' ekimenarekin. Erreferendumaren aldeko sinadura bilketa hauspotzeko konpromisoa hartu dute; aurtengo irailetik abendura izango da

Txintxarri

Lasarte-Oriako hainbat eragilek eta norbanakok mezu argia plazaratu dute: bat egiteko eta elkarrekin ekiteko unea da, Euskal Herri burujabeago bat lortzeko bidean urratsak egiteko. Testuinguru horretan, erreferendumaren aldeko manifestua sinatzera gonbidatu dituzte herritarrak; firma bilketa irailean abiatuko da, eta abenduan bukatuko da.

Lasarte-Oriako Gure Eskuren hitzetan, COVID-19aren pandemiak "hamaika gabezia" utzi ditu agerian. "Horietako bat, guretzat oso nabarmena, Euskal Herriaren burujabetza-falta da". Argi du zailtasun

sanitario eta sozioekonomikoei aurre egitea dela lehentasuna, baina horrek ez duela esan nahi "arnasa luzeagoko politika" egiteari utzi behar zaionik. "Egoera konplikatuan gauden arren, uste dugu laster izango dela eutsi bakarrik ez, aurrera egiteko unea ere bai".

"Bat egiteko unea da"

"Bat egiteko unea da, elkar zaintzekoa eta elkarrekin ekitekoa". Hori sinetsita, Lasarte-Oriako hainbat eragilek eta herritarrek erreferendumaren aldeko manifestua sinatzera gonbidatu ditu herritarrak, Mirentxun talde-argazkia aterata. *Hamaika Gara*

ekimenaren sustatzaileekin bat egin dute. Firma bilketa aurtengo irailean hasiko da, eta abenduan amaituko da.

Era berean, uztailaren 3an Bilbon burutuko den mobilizaziora joateko deia luzatu dute prentsurrekoan izan direnek. "Aurrerago emango ditugu ekimen horri buruzko azalpen gehiago", ohartarazi du Lasarte-Oriako Gure Eskuk.

Mundu mailako krisia noiz amaituko den ez jakinagatik, eragile horrek uste du "gure esku" dagoela egoera horretatik gizartea nola irtengo den erabakitzea. "Indarrak batzen ari gara, egoera honetatik burujabeago irten gaitzen".



NEURE KABUZ

LIERNI REKONDO

Musukoa katamalo

Noiz bihurtu zaizkigu musukoak katamalo?

Azken asteetan musukoaren erabileraren inguruan irakurtzen jardun naiz komunikabideetan. Datuen eboluzioa eta txertaketa kanpaina direla medio, laster bere erabilera arinduko dela aurreikusten dute aditu zein agintariek.

Uste baino okerrago jaso dut berri hori, ez baitakit prest ote nagoen aurpegi erdi estali gabe mundura ateratzeko. Eta ez naiz kutsatzeko beldurraz ari, biluzteko beldurraz baizik. Lehengoan hamalau urteko ikasle batek musukoa jantzita eramateak segurtasuna ematen diola esan zidan, aurpegia estalita edukitzeak babestuago sentiarazten duela, eta, hala da, hala gertatzen zait niri ere.

Laneko lehen egunak arindu dizkit musukoak, ikasleen aurrean totelka hitz egitea saihestu, emozio eta tristura keinuak ezkutatu, ezezagunen aurrean seguruago sentiarazi nau.

Musukoa konplexuak estaltzeko eta, nolabait ere, ahalduzko elementua bilakatu da askorentzat. Beste batzuentzat, ordea, norberaren potentziala murriztea eragin du, autoestimua eta autoeraginkortasunaren pertzepzioan oinazea utziz. Harrigarria da nolako eragina duen gudan "gure zati bat" estaltzeak; aurpegiko zuloak estaltzeak; zuloak batzuren estaltzeak beste batzuen arintzea dakar ezinbestean, harrigarria da, nioen, nola mugatzen gaituen edo nola ahalbidetzen digun ez garen gu hori izatea.

Momentu batzuetan, leku batzuetan, egoera batzuetan, ezezagunen aurrean... musukoa kentzea beste norbaiten aurrean kuleroak erantztea bezalakoak da, gaur egun irribarra erakustea biluzteko modu bat delako; lehen ere bai, akaso, baina ez hainbeste.

Eta berriz galdetzen dizuet; kaos guzti honen erdian, noiz bihurtu zaizkigu musukoak katamalo? Zergatik bihurtu zaizkigu musukoak katamalo?

Eremu horian egonkoritu da Lasarte-Oria

Maiatz erdialdetik eremu horian dago Lasarte-Oria, 60 eta 299 arteko intzidentzia-tasa metatuak dituzten udalerrien multzoan. Apurka-apurka, jaisten jarraitzen du COVID-19aren eraginak gure herrian: maiatzaren 19an 278,29 zen intzidentzia-tasa; astebete

beranduago, ia ehun puntu baxuagoa, 178,52. Datu ofizialen arabera, 2020ko martxoaren 18tik 2021eko maiatzaren 26ra arte 1.666 herritar kutsatu ditu koronabirusak, biztanleria osoaren %8,7.22 pertsonak ez dute osatzerik izan, eta hil egin dira.

Maiatzaren 31n elkartuko da LABI aholku batzordea, gaur egun indarrean dauden osasun-neurriak berrikusteko.

Makrame tailerra

Alazne Alegrerekin

Ekainak 4 17.00-19.30

Udal Euskaltegiko areto nagusian

Bazkideak: 5 €
Ez bazkideak 8 €
(materiala barne)

△△ ZIZKA
▽▽ MIZKA

Izena emateko: 695 78 53 89 kultura@ttakun.eus

Mendebaldeko Saharan gertatzen ari dena hizpide

Mendebaldeko Saharako egoeraren berri izan dute dozenaka herritarrek Antonio Mercero gunean. 'Ocupación SA' dokumentala ikusi dute, eta, hori amaituta, Juan Soroeta eta Fernando Vaquerizo gonbidatuen gogoetak entzun dituzte, eta galderak egin dituzte

Maitane Aidanondo

Mendebaldeko Sahararekiko Euskal Herriko Lagunen Elkarteak antolatuta, MunduBat eta Gune Irekiak Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek (GGKE) ekoiztutako *Ocupación SA* dokumentalaren emanaldia egin zuten maiatzaren 21ean Mercero gunean. Film laburra amaituta, Nazioarteko Zuzenbidean katedradun Juan Soroeta eta MunduBateko langile Fernando Vaquerizok Mendebaldeko Sahararen egoerari buruz hitz egin zuten.

Hiru hamarkada daramatza adituak gatazka gertutik jarraitzen. Dokumentalean ikusitakoari tiraka hasi zen hizketan, bertan ageri diren zenbait emakumeri gertatutakoa gogora ekarri eta lurralde okupatuetan daudenen adorea nabarmenduz, "ez dute beldurrik eta ez dira geldituko". Nazioarteko ikuskatzaile gisa hainbat sahararren epaiketetan izan da Soroeta eta "antzerki surrealista" bezala definitu zituen hitzaldian. Hala ere, haietan epaituak izan direnen jarrera goraiatu zuen. "Torturatuak izan badira ere, ez dute gorrotorik" eta bide baketsutik irtenbidea lortu nahi dute.

Horri lotuta, dokumentala egin duten GGKEtako bateko langile eta ekitaldia antolatu duen taldeko kide den Fernando Vaquerizok proiektuaren xedea azaldu zuen. Hain zuzen ere giza eskubideen urraketa erakutsi nahi zuten, ez gobernuek egindakoa bakarrik, baita enpresen aldetik jasaten dutena ere. Halakoak jasaten dituzten herrialdeen artean adibide garbiena da Mendebaldeko Sahara. Espainiako enpresa garrantzitsuenetako askok interesak dituzte lur haietan eta ez diote jaramonik egiten



Esker-eskuin, Fernando Vaquerizo eta Juan Soroeta, Mercero gunean. TXINTXARRI

nazioarteko zuzenbideak dioenari. Esaterako, zehaztu dutenez, Siemens-Gamesa euskaldunaren energia errotarik gabe ez litzateke fosfato meatzea martxan jarriko.

Marokoren "xantaia"

Halako interesak babesteak azaltzen du azaroan piztutako gatazkaren berri apenas ematea eta Espainiak Marokoren "xantaia" onartzea. Vaquerizoren esanetan, "Marokoko Erreinuak hiru txorrota baliatzen ditu: arrazoia ematen badidazu Saharan, txorrota itxiko dut migrazioa, haxixa eta terrorismo islamistari dagokionean. Bestela, zabaldu egingo dut. Aste honetan gertatutakoak argi erakusten du hori". Soroetaren ustez, egunotako krisia "abisu txiki bat" besterik ez da izan eta erreinuko agintariek "hanka sartu dute". Gainera, aste gutxitan egoera are gehiago

**JUAN SOROETA:
"SAHARARREK EZ
DUTE BELDURRIK
ETA EZ DIRA
GELDITUKO"**

gaiztotu daitekeela aurreikusitu du. Izan ere, hiruzpalau aste barru jakingo baita Maroko eta Europako Batasunaren arteko arrantza eta merkataritza akordioei buruzko Europako Justizia Auzitegiaren erabakia. "Dakidanez, baliogabetu egingo ditu. Hala izatea espero dut". Akordio horretako arrantzen %96 Mendebaldeko Sahararen uretan egiten dute, eta epaia esperotakoa bada, migrazio arazoak nabarmen areagotuko dira. "Marokon eta Mendebaldeko Saharan ez da inor mugitzen gobernuak jakin gabe".

Bertaratutako enpresen galderak erantzuten ere ahalegindu da testuinguru historikoa azaldu eta bere bizipenak partekatuta. Nazioarteko zuzenbidea, zalantzarik gabe, sahararren alde badago ere, helburua lortuko duten ez du horren argi.

Mendebaldeko Sahararen alde, ekintza egingo dute maiatzaren 30ean Donostian: herritar horien askatasuna eskatzeko giza-katea. Bulebarrean elkartuko dira, 12:00etan. Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeak parte hartzeko deia luzatu die lasarteoriatarrei.



Mercero gunean elkartu dira aSUNak talde feministako kideak. TXINTXARRI

Jarduna erreparatzeko eta ikasturtea bukatzeko, bilera

Buruntzaldeko udaleku feministei egin nahi dieten ekarpena eta aurrera begira zer asmo dituzten ere eztabaidatu dute

Txintxarri

aSUNak talde feministako kideak Mercero gunean elkartu dira azken hilabeteetako jarduna erreparatu eta ikasturtea bukatzeko. Udar, Buruntzaldeko udaleku feministei egin nahi dieten ekarpena eta aurrera begira zer asmo dituzten ere eztabaidatu dute.

Taldea iaz xede beraren inguruan egindako bilera batean sortu zen, neska* gazteen ideari lotuta. Zein gogo, ideia eta ekarpen egin nahi zituzten partekatu zuten eta bildutako hori guztia, hiru bloketan banatu zuten: formakuntza edo ikasi

nahi zuten hori, elkar ezagutza eta herriari begirako ekintza bat, "hemen gaudela erakusteko". Hilabeteotan betetzen joan dira zehaztutakoa. Azken ildo duela pare bat aste Okendo plazan ikusgai jarri zuten erakusketa izan zen.

Taldearen berri izan nahi zuen emakume bat bertaratu da bilerara, aurtengo eskualdeko udaleku feministetarako proposamena prestatzen hastekotan zirela. Laguntza emateko eskaini du bere burua eta taldeari buruzko jakin-mina adierazi die.



TXINTXARRI

Baserritik, kabaretera

Elur Sorkuntza Etxea konpainiaren *Esnatu naiz* ikuskizunak musika, dantza eta antzerkia uztertzen du Peioren bizi bidaia kontatzeko. Baserrian jaiotako eta hazitako gaztea da. Argi du bere identitate sexuala zein den, eta inguruan ulertzen ez dutela ere. Hala, Londresera joan eta The Pink Flamingo klubean lana aurkituko du. Platerak garbitzen hasi, eta, ezustean asmatutako koreografia, ikuskizun arrakastatsu bilakatuko du. Hamar urte geroago, bizitza goitik behera nola aldatu zaion kontatu die ikusleei.

Parisera lekualdatu dute Fernandez Iradi

Euroagindu baten jakinarazpena jaso, eta ia 800 kilometroko bidaia egin behar izan du herritarrak, Lannemezango espetxetik La Santekora. Fernandez Iradiren familia eta zenbait eragile "oso arduratuta" daude; "Ibonen osasun egoerari kalte besterik ez dio egingo"

Txintxarri

Bakegileek eta Bake Bideak ohar bidez jakinarazi dutenez, Ibon Fernandez Iradi lasarteoriatarra Lannemezango espetxetik ia 800 kilometroko bidaia egin behar izan du Parisko La Santera lekualdatu dute maiatzaren 25ean, euroagindu baten jakinarazpena tarteko. Larriki gaixo dagoen presoetako bat da herritarra: esklerosi anizkoitza diagnostikatu zioten 2013. urtean. Bi aldiz eskatu du zigorra eteteko, baina epaitegiek ezezkoa erantzun dute, 2016ko irailean aurrenekoz, eta 2020ko otsailean bigarrenez.

Lasarte-Oriako Sareko kideak harremanetan jarri dira TXINTXARRI aldizkariarekin, eta jakinarazi diote Fernandez Iradik hamar egunez (maiatzaren 25etik kontatzen hasita) egon beharko duela espetxe horretan. "Ibonen esklerosi anizkoitza dauka, eta lekualdatzeak ez dio ezer onik ekarriko; familia, lagunak eta gu geu oso arduratuta gaude".



Kontzentrazio bat Okendon. TXINTXARRI

Eritasun larri hori "ahalik eta ongien" zaintze aldera, herritarrak errutina jakin bat jarraitzen du Lannemezango; Parisko La Santera urrunduz izanak "nabarmen" eragin du horretan, Sarek zehaztu duenez:

"Desordena handia eragin dio Iboni: janaria eta otorduak, ziega presoak bera garbitu behar izana, ia 800 kilometroko bidaia...". Orain arte, gisa horretako jakinarazpenak Pauen tramitatzen zituzten, eta joan-etorria egun bakarrekoa izaten zen. Parisko fiskal nagusiak, ordea, erabaki du haraino joan behar dela orain gisa horretako kontuak egiteko.

'Azken Ostirala'

Maiatzeko azken ostiralean, hilaren 28an, *Azken Ostirala* egingo dute Sarek berak eta Lasarte-Oriako Presoen Aldeko Batzordeak, 20:00etan. San Pedro elizaren atzeko enparantzan elkartuko dira, erdigunea zeharkatuko dute eta Okendo plazan amaituko dute ekitaldia. Aurreratu dute Ibon Fernandez Iradi herritarraren egoerari buruzko azken berriak partekatuko dituztela herritarrekin, hori izango dela "gai nagusia".

hartu du, eta bi sari irabazi dituztela jakinarazi dute biek. Editatutako bideoen atalean lehen postua eskuratu dute -Idoia Arteaga herritarrak idatzi du gidioa-, eta ediziorik gabeko bideoen sailean, berriz, bigarren postua eskuratu dute.

Sanchezek eta Landak zorionak eman dizkiete parte-hartzaile guztiei, aurkeztu dituzten lan "handiengatik". Eta esker hitzak ere zuzendu dizkiete antolatzaileei, euren lanik gabe "ezinezkoa" litzatekeelako txapelketa egitea. Epaileak ere gogoan izan dituzte, eta, azaldu dute lehen esperientzia hori "oso positiboa" izan dela eta ziur daudela, etorkizunean egingo diren Videosub Euskadi txapelketak "emozio eta poz" handiak emango dizkiela.

David Sanchezentzat bi sari, Videosub Euskadi txapelketan

CIMASUB itsaspeko zinema zikloaren zuzendaria da, eta bere lanek lehen eta bigarren postuak eskuratu dituzte

Txintxarri

CIMASUB itsaspeko zinema zikloko zuzendari David Sanchez herritarraren bi lan saritu dituzte Gipuzkoako Urpeko Jardueren Federazioak antolatzen duen Euskadiko itsaspeko bideo txapelketan. Real Sociedad taldeko urpekaritza saileko kidea da Sanchez, eta talde horren izenean hartu du parte. Guztira hamasei parte-hartze egon dira, eta horietan hamar bideo-egilek parte hartu dutela jakinarazi du Sanchezek.

Lasarteoriatarrak, Daniel Landa Quirogaekin batera parte



David Sanchez taldekideekin. D. SANCHEZ

Lasarte-Oriako
BERTSO ESKOLA

earra!

BERTSO ESKOLA

Kulturari eta bertsoaritzari leiho bat zabaltzen

Lerro hauen azpikoaren gisako bertsoak irakurri ahal izango dituzue atal honetan, herriko Earra! bertso eskolan aurtengo ikasturtean errimekin, doinuekin, hitzekin eta euskararekin lanean eta jolasean ari diren ikasle finen eskutik. Eskolak eta TXINTXARRI-k martxan jarritako egitasmo honen helburua da kulturari leiho bat zabaltzea.

Maiatzeko bertsoa

Doinua: *Maisu Ruanda*

Alarma egoera egin da bukatu kaleak berriz ere dira animatu lurraldez mugitzea ezin da mugatu goza dezagun baina zentzuaz jokatu berritza ez gaitzen atzera bueltatu.

DBH2ko taldea: Maddi, Arait eta Urko

Maila ederra erakutsi arren, kanporatu egin dute Leire Mayo

Leire Mayo lasarteoriatarra izan da *El Conquistador del Caribe* saioko azken programako kanporatua. Etxera joan aurreko elkarrizketan, Julian Iantzi aurkezleak *La guerrera de Lasarte* (Lasarte-Oriako gerlaria) ezizena jarri zion, eta ezin esan herritarrak goituzen horri ohore egin ez dionik, azpimarratzeko moduko maila erakutsi baitu lehiaketan: hiru duela gainditu ditu, eta lehiakide indartsuak

jokoz kanpo utzi. Azken biak segidan egin zituen, eta hirugarren batera joateko ere nominatu zuten Cacatek, bere taldekideek. Ez diote atsedetik eman, eta fisikoki zein mentalki akituta, ezin izan zuen eskatutakoa burutu.

Bi lasarteoriatar joan ziren Dominikar Errepublika konkistatzera: Leire Mayo eta Mikel Arruti. Honezkerok, biak kanporatu dituzte. Arrutiri ez zioten duelua egiteko aukerarik ere eman, eta zuzenean bidali zuten etxera; aurtengo edizioa aurreneko kaleratua izan zen.



Lizar eta Harri semeak, Ainara eta Ibon gurasoak ondoan dituztela, espetxean ateratako argazki batean. AINARA FRESNEDA

Lau orduko bidaiia, aitarekin egoteko

FERNANDEZ IRADI-FRESNEDA FAMILIA AITA KARTZELAN DUEN FAMILIA

Parisko espetxe batean dago preso Ibon Fernandez Iradi, Ainara Fresnedaren bikotekide eta Lizar eta Harriren aita. Kilometro luze egin behar dituzte senideek, hilabetean behin laurak elkarrekin egoteko. Gurasotasuna nola bizi duten kontatu diote TXINTXARRI-ri.

Maddi Zaldua

Pentsa zein zaila izan daitekeen aita edo ama etxetik kanpo, urrun duten familien egunerokoa. Distantziek, ordea, ohi baino gehiago ere batu ditzake senideak, baina, hutsunea, sumatzen da, ezinbestean. Horrelako egunerokotasunean bizi da Fernandez Iradi-Fresneda sendia. Ibon Fernandez Iradi aitak, Ainara Fresneda amak eta Lizar eta Harri semeek osatzen dute familia hori. Aita espetxean dago, Lannemezanen berez (Frantzia), eta Parisko La Santen zenbait egunez, baina etxekeoengandik gertu. Gurasotasuna nola bizi duten kontatu diote, TXINTXARRI-ri.

Kartzelan ezagutu zuten elkar Fresnedak eta Fernandez Iradiak, eta hantxe hartu zuten familia bat osatzeko erabakia, nahiz eta umeak, ama espetxetik irtenda zegoela jaio ziren: "Espetxean geundela erabaki genuen, erabaki hark izan zitzakeen muga guztiekin", azaldu du Fresnedak. Aitortu du ez zela erabaki erraza izan, espetxea baita bere familia baldintzatzen duen

"ESPETXEAK BALDINTZATUTA, GURASO IZATEKO ERABAKIA HARTZEA EZ ZEN ERRAZA IZAN"

faktore nagusietako bat, baina, zailtasunak zailtasun, aurrera egin zuten: "Ibonen kartzelaldia luzea izango zela jakinik, haurrak izango genituen edo ez erabakitzeke ueña iritsi zen. Espetxearen baldintza hor egongo zela kontziente ginen, horrek egoerari ematen dion gordintasun eta gogortasunarekin, baina, aurrera egiteko erabakia hartu genuen, eta pozik gaude horrekin".

Egunerokoa bezala, haurdunaldia eta erditzea bezalako une "berezieta" bikotekidearen hutsunea antzeman duela kontatu du: "Une horiek oso hunkigarriak dira, eta nik ez nuen bikotekideren

Aita kartzelan duen familia. Maiatzaren 15a Familiaren Nazioarteko Eguna dela baliatuta, familia eredu ezberdinen gaineko erreportaje sorta argitaratzen ari da TXINTXARRI aste hauetan. Aste honetan Fernandez Iradi-Fresneda familiaren testigantza bildu dugu. Bikotekide eta aita Ibon espetxean dago, eta egoerari hori kontuan hartuta, gurasotasuna nola bizi duten kontatu diote TXINTXARRI-ri.

presentzia fisikorik izan, nahiz eta Ibonek beti egiten duen gertu egoteko ahalegina".

Bikotekide eta aitari bisitak

Urte luzez hamabost egunero joan izan dira bikotekide eta aita bisitatzeri; bi astean behin ikusten zuten laurak elkar. Azken urteetan, ordea, Frantziako espetxeek "aukera berri bat" eman diela kontatu du Fresnedak: "Egun bateko edo bi eguneko bisitak egiteko aukera izan dugu, kartzela barruan dagoen apartamentu batean". Bisita mota hori, ordea, hilabetean behin egiteko aukera dago, hortaz, Lizarrek eta Harrik hamabost eguneko behin ez, hilabetean behin ikusi dute aita, azken urteetan.

Orain, aldiz, bizi ditugun pandemia garai hauek ere eragin diete elkar ikusteko hitzordu horiei. Fresnedak kontatu duenez, apartamentuko bisitak eten egin dituzte, eta bestelako bisitetara ere ezin dute hurrek joan. Gauzak horrela, zortzi hilabete dira semeek aita ikusi ez dutela. Bisitan joan ahal izateko aukera heldu bitartean, telefonoz eta gutun bidez soilik izaten dute elkarren berri, baina, gauzak ondo bidean, ekainaren 18an izango dute, berritara ere, aitarekin "etxetxoan" elkartzeko aukera.

Bisitetara joateko bidaiak ere ekarri dituzte gogora erreportaje hau prestatzeko elkarrizketan. "Bisita lehenbailehen hasteko irrikaz egiten ditugu bidaiak; elkar besarkatzeko gogo sentitzen dugu, eta haurrak ere oso pozik, urduri eta aitarekin

"ZORTZI HILABETE DIRA, COVID-19AREN ONDORIOZ LIZAR ETA HARRIK, AITA IKUSI EZ DUTELA"

zertara jolastuko diren pentsatzen joaten dira".

Etxean, hutsunea


Egunerokoa bikotekidearen eta aitaren "falta" sumatzea ez da erraza Fresnedarentzat, baina, bereziki zenbait egoeratan egiten zaie zailago. Adibideak ere jarri ditu: "Etxean, haurrek Ibonen behar handiagoa sentitzen duten momentuak gogorak dira. Bere gaixotasunaren sintomak areagotzen ari direla jakiten dugun bakoitzean ere, inpotentzia sentimendua sortzen da gudan". Eguneroko "egoera zailetan" ere nabaritzen dute bikotekide eta aitaren beharra; semeak gaixorik daudenean, oporraldietan, eta abar. "Zoritxarrez ez dugu beste egoerarik ezagutu, eta momentu on zein txarretan beti dugu Ibon falta zaigunaren sentsazio hori".

Aita kartzelatik aterako zain

Lizar eta Harrik eguneroko eguneroko erakusten dute aita espetxetik ateratzeko borondatea. Horrela azaldu du euren ama Ainarak: "Espetxearen presentziarekin hazten ari dira gure semeak; zoritxarrez ez dute beste egoerarik ezagutu. Askotan galdetzen didate, adibidez, aita noiz aterako den kartzelatik".

Aita espetxean egoteak zenbait kezka sortzen badizkie senideei, zer esanik ez, kasu horretan, preso dagoen senidea gaixorik dagoenean. Hori da Ibonen kasua, gaixorik dauden hamazazpi euskal presoetako bat baita Fernandez Iradi. Esklerosi anizkoitza dauka eta kezka gehigarri horrekin bizi dute egunerokoa bere bikotekide eta semeek.

Presondegian zegoela gaixotu zen Fernandez Iradi, eta eritasun hori "kronikoa eta neurodegeneratiboa" dela azaldu du Fresnedak. Kartzelako baldintzak, gainera, ez dira gaixotasuna zaindu eta bizi



"MOMENTU ON ZEIN TXARRETAN, BETI DUGU IBON FALTA ZAIGUNAREN SENTSazio HORI"

kalitate hobeko bat izateko egokiak, eta, gaur gaurkoz, "atzerazinak" diren ondorioak jasaten ari dela azpimarratu du. Gaixotasun hori espertxetik kanpo pairatzea "arazo larria" bada, zer esanik ez gaixo dagoena kartzelan badago. Dena den, goraiatu du bere bikotekide Ibonek eritasunari aurre hartzeko ateratzen duen gogo eta indarra: "Ibon beti saiatzen da bere egoerak ahalbidetzen dion bizitza ahalik eta aktiboena edukitzen".

Gizartearen ikuspegia

"Babes handia" ematen dien "ingurune hurbil" bat badutela nabarmendu du Fresnedak. Kontatu du, Lesakan bizi direnez, eta herri "txiki" bat izanik, denek badutela euren egoeraren berri, eta horrek ahalbidetzen dituela zenbait egoera. Semeek, esaterako, lagunekin eta ikastolan hitz egiten dutela euren aitaren egoeraz.

Elkartasuna adierazten dieten "jende multzo bat" ere badute ondoan, baina, ikusten du baita ere, bere bizitzan bestelako "arazo handiak" dituzten pertsonak ere: "Horiek nahikoa lan badute, egunero aurrera egitearekin; gu kontziente gara, gure arazoak ez direla beste batzuenak baino handiagoak edo larriagoak".

Azkenik, identifikatu ditu baita ere, "euren zibilborretik harago" begiratzeko ezintasunak dituztenak.

Orain ekainaren 18ra begira daude Ainara, Lizar eta Harri; bikotekide eta aita bisitatzen joateko egunaren zain. Denbora luzea eta gero, laurak elkarrekin egoteko aukera izango dute, laster.

Gainerako gurasoek lortu nahi dituzten helburu berdinak, baina oztopo ezberdinak

Espetxean guraso izatea "zailtasunez betetako bide bat" dela kontatuz hasi du Ibon Fernandez Iradik Lannemezango espertxetik erreportaje hau osatzeko TXINTXARRI-ri bidali dion idatzia.

Kontatu du, guraso izatea planteatu zuten momentuan, "ziurtasun osoz" zekiela bere seme edo alabaren bizipen eta pasarte asko galdu egingo zituela, edota bera ikustera joateko bidaia "amaigabe eta etengabeak" egin beharko lituzketela. Horrekin batera, jakin bazekien baita ere, egunerokoan bere beharra izango zuten momentu askotan, ezintasunaren sentimendua loratuko zela beregan, eta, bisitak, espetxea bezalako leku "arrotz" batean izango zirela.

Erabakia hartzeko oztopoen zerrenda "luzean", gogora ekarri ditu, euren kasuan ez bezala, semea edo alaba espetxean bertan jaiotzea tokatu zaien gurasoak.

Orain arte egoera erraza izan ez bada ere, are "korapilatsuagoa" bilakatu da azken urtean. COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz, espetxeak ixteko erabakia hartu zuten Espainiako zein Frantziako estatuek: "Hori izan zen hartu zuten lehen neurrietako bat, eta kartzelan gaudenokiko duten begirunea ikusita, irekitzen azkenetarikoak". Azpimarratu du bera preso dagoen Lannemezango espetxean baino "egoera okerragoan" dagoenik egon badagoen arren, 2020. urteko urriaz geroztik semeak ikusi gabe dagoela.

Ulertzen du pandemia ez dela erraz kudeatu daitekeen egoera bat, baina, neurriak hartuta euren egoera "pixka bat" arinduko lukeen edozein proposamenei ezezko biribila eman diotela azaldu du, eta, are gehiago zaildu du horrek gurasotasuna:

"Mugatua zen gurasotasuna, kasik ezerezean geratu zaigu, eta ez dugu *Noiz ikusiko dugu aitaxo berriro?* edo *Aitaxo aurtan zu ikusteko aukera izango dugu?*

bezalako galderentzako erantzunik izan.

Bere bikotekide Ainarak bere elkarrizketan aipatu du Ibonek espetxean egonda ere egunerokoari aurre egiteko ateratzen duela indar eta gogoa, eta testu hau osatzeko bidali duen idatzian ere, azpimarratu nahi izan ditu espetxean guraso izatearen alde garrantzenekin batera, gozotik ere badutenak; hala nola, espetxean guraso izateko eta bizipen horiek sortzen dizkion aukerak: "Orain artekoak idatzita, batek pentsa dezake espetxean guraso izatea tragedia hutsa dela, baina, kartzelako zirikituek uzten didatenean, guraso bezala sentitzen ditudan betebeharrak, kezka eta asmoei bide emateko aukera ere izaten dut". Eta hasi da betebeharrak, kezka eta asmo horiek zerrendatzen.

Kezkak, pozak eta helburuak

Edozein gurasok izan ditzakeen "kezka eta asmo" berdinak sentitzen ditu Fernandez Iradik espetxean egonda. Adibidez, semeak gaixotu direlako edo min

hartu dutelako, edota egunerokoan litxarrerriak jaten dituztelako, edo *tabletean* denbora gehiegi jolastean aritzea eurentzat ona ez dela ulertarazi nahi dielako, eta baita ere "bisita luzera" ikastolan ondo ulertu ez dituzten etxeko-lanak ekarri eta horiek egiten lagundu nahi dielako.

Edozein gurasok euren seme-alabengatik senti dezaketen "tristura eta poz" berdinekin ere bizi du berak aitatasuna: "Lagunekin urtebetetze bat ospatu eta primeran pasa dutela esan didatelako, edota irakasleak ikastolan ongi dabilzala aipatu digulako, edota bihurrikeria handiegia egin dutelako, edota arratsalde oso bat errekan jolasean pasa dutelako".

Eta, noski, edozein gurasok izan ditzakeen helburu berdinak ere baditu Fernandez Iradik ere: "Egunetik egunera pertsona hobekia izan eta egiten duten horretan arduratsuak izan daitezela".

Espetxean egotearen "oztopoa", berriz, ezberdina da beste edozein gurasorekin alderatuz. Hala ikusten du berak: "Edozein guraso eta haurrek ez dituzte guk ditugun oztopoak". Eta zailtasun guztien gainetik, bere semeak "osasuntsu" hazten ari direla jakiteak "asebetetzen" duen arren, muga horiek inoiz onargarriak izan ez direla iritzi du: "Konponbidean jartzeko urgentzia dago". Hori iritsi bitartean, ordea, amesten jarraituko duela azaldu du: "Bisita eremuko atea zabaldu eta irribarre bat ahoan, besoak zabalik nigana korrika ikusten ditudan momentua itxaron eta une horietan sentitzen dugun poztasun eztabiarekin amesten jarraituko dut".

Erreportaje hau aitzakia hartuta laburtu ditugu Lesaka, Lannemezango eta Lasarte-Oria arteko distantziak, une batez. Eskerrik asko, familia zuen prestutasun eta laguntzagatik. Ametsa errealtate bilakatzear da.



Ainara, Lizar eta Harri, aitari espetxera bisitan joandako une bateko argazkia. AINARA FRESNEDA



Etorri berriei harrera egokia egiteko protokoloak eta ekimenak prestatzen ari dira Buruntzaldeko udalak

Azken urteotako migrazio mugimenduek eraginda, jatorri askotako biztanleak ditugu gure herrietan. Kultura eta hizkuntza desberdinetako herritarrak. Aniztasun hori behar bezala kudeatzea da udalen erronka nagusietako bat. Horretarako, hainbat egitasmo eta tresna prestatzen ari dira etorri berriei harrera egokia egin eta elkarbizitza sustatzeko helburuarekin

Immigrazioaren gaia puri-purian dago azken urteotan. Hamaika arrazoi direla medio, milioika herritarrek beren sorterrria utzi behar izaten dute bizitza hutsetik hasteko beste herrialde batean. Hori horrela, txoko askotako pertsonak egiten dute topo herri eta inguru berean, kultura, hizkuntza, bizimolde desberdinak dituztenak, aniztasun handia eraginez.

Ikuspegik (Immigrazioaren Euskal Behatokiak) 2021ean landu duen txostenari erreparatuta, EAEko 2.212.561 biztanleetatik 246.501 atzerritarra da jatorriz (%11,1). Gipuzkoan ere oso antzekoak dira proportzioak (%11,2), 81.354 pertsona jatorri atzerritarrekoak.

Buruntzaldera etorrita, jatorri atzerritarra duten biztanleen proportzioa baxuagoa da. 75.000 eskas biztanle dituen eskualde honek %7 inguruko atzerritar tasa du. Proportzioak dezente aldatzen dira herri batetik bestera. Badira %5 inguruko portzentajea dutenak (Lasarte-Oria edo Astigarraga kasu) eta badira %10eko portzentajea dutenak, Hernani kasu. Argitu behar da, datu horien arabera, atzerritartzat, Espainiako Estatutik kanpo jaiotakoa hartzen dela.

Buruntzaldean dauden atzerritarren jatorriari dagokionez, EAEkoen eta Gipuzkoakoen antzera, latinoamerikarrak dira gehienak; magrebiarrak ere ugari dira eta errumaniarrek ere badute presentzia esanguratsua, portugaldarrekin batera.

Hizkuntza ezagutzari dagokionean, nahiz eta datu zehatz eta fidagarririk ez dugun, esan daiteke gehiengo handi batek gaztelaniaren ezagutza baduela,



Amher-SOS Arrazakeria Elkarteak Atzerritartasun Legeari buruz saioak egiten ditu.

askok hizkuntza bakar gisa dakarte, eta beste batzuek beste hizkuntza batzuekin batera. Badira gaztelaniaren ezagutza batere gabe edo oso gutxiarekin iristen direnak ere, jatorriaren arabera, eta badira, aurrez Euskal Herriko beste herriren batean egonak direlako edo, euskararen ezagutza maila txiki bat dakartenak, baina oso gutxi dira horiek.

Etorri berrien harrera

Mugimendua etengabea da. Asko dira urtean zehar etortzen diren atzerritarrak eta asko dira joan ere egiten direnak. Denak ez dira udaletako errola bulegotik pasatzen, badirelako errolatu gabeko biztanleak ere, baina handia da erroldan dauden alta eta baja mugimenduak.

Nolako harrera egiten diegu gure herrietara datozen biztanle berriei? Azken bolada honetan kezka iturri da gai hau Buruntzaldeko udaletan eta gero eta gehiago dira martxan jartzen

ari diren protokolo eta ekimenak, harrera egokia egiteko, batetik, eta, behin herrian daudela, herriko bizimodu, kultura, hizkuntza eta herritarrekiko harremanak sustatzeko.

Bide horretan, batetik, harrera protokoloak sortu dituzte. Joan den otsailean aurkeztu zuen berea Hernaniko Udalak, eta dagoeneko zehaztu dituzte lanildoak. 2020ko urtarrilean abiatu zuen prozesua Udaleko Kulturartekotasun Sailak, eta hainbat herritarren eta eragileren kolaborazioarekin eta ekarpenekin osatu dute. Hernaniko Harrera Protokolo berriak lau oinarri ditu: pertsonen oinarriko eskubideak bermatzea; etorri berriek herrian bizitza aktiboa izatea eta inklusioa sustatzea; jatorri eta kultura-aniztasuna bultzatzea, elkar ezagutza bi norabideetan emanez; eta erroldatik harago esku hartzea.

Bestetik, udaletxeko Herritarren Harrera Zerbitzuan

(HHZ) ematen diete aurreneko informazioa etorri berriei. Horrez gain, errolda momenturako protokolo zehatza ezarri nahi dute, eta baita Baliabideen Gida bat eman, Harrera Bulegorako hitzordua eskaini eta Ongi Etorri saiorako gonbidapena luzatu ere. Era berean, Amher-SOS Arrazakeria Elkarteak eta Udalak osatutako talde eragileak Harrera Bulego Integrala sortzea du 2021eko erronketako bat. Bertan, ahalik eta modu pertsonalizatuenean eskainiko zaio arreta etorri berriari. Baina hori ez ezik, beste hainbat helburu ere zehaztu dituzte aurtengorako, besteak beste, adierazitako Baliabideen Gida eguneratzea, aholkularitza juridikoa eskaintzea, edota laster inauguratuko den Kulturarteko Plaza Feminista.

Andoainen ere martxan dute harrera plana. Udaleko lan-sail guztiak, Gizarte Zerbitzuen gidaritzapean, etorri berriei harrera egiteko protokoloa eta gida ari dira lantzen.

Hari horri tiraka, komeni da aipatzea Buruntzaldeko hainbat herritako ikastetxeetan azken urteetan sortu den desafio bat. Esaterako, Andoainera gerturatuta, Ondarreta «jatorri immigranteen ikastetxea» dela helarazi dute ikastetxeko zuzendaritzako taldeko kideek. Ikastetxeko langileen esanetan, «jatorriz, batez beste, %57 dira kanpoko herrialdeetakoak; zenbait gelatan, %80ra iristen da kopurua. Munduko 30 nazionalitate eta kultura desberdinetako ikasleak biltzen dira bertan». Horren ondorioz, diote, «ghetto txikiak» sortzen direla. Edonola ere, immigrazioaren fenomenoari

tinko heldu diote herrian. Eta horretarako jarri dituzte martxan hainbat proiektu eta egitasmo, inklusioa sustatzeko eta Andoainen herritar guztien arteko elkarbizitza sana lortzeko.

Inklusiorako ekimenak

Horrez gain, Andoainen, Gizarte Zerbitzuek martxan dute 2014tik Ongi Etorri Eskolara proiektua. Gipuzkoako 16 ikastetxetan dago abian, lehen mailako irakaskuntzan. Helburua da eskola eta komunitate inklusiboari bidea egitea; eta, horretarako, kulturarteko eredu pedagogikoa abian jartzeko bidelagun lanetan aritzen da. Hitz gutxitan esateko, xedea da atzerritik etorritako familiak integratzora bideratzea, euskal kulturara eta hizkuntzara hurbiltzearen bidez. Halaber, dinamikaren funtsezko gakoia euskara da, izan ere, ikasleria osoaren aukera berdintasunerako erreminta nagusia bertako hizkuntza dela uste dute.

Horrekin batera, Ongi Etorri Eskolara dinamikaren baitan, Familia laguna izeneko ekimena garatu dute. Familia euskaldun bat eta atzerritik etorritako beste bat harremanetan jartzen dira, bi kulturen arteko elkar trukea egiteko eta konfiantzazko harremana sortzeko. Horixe

**'ONGI ETORRI
ESKOLARA'
PROIEKTUAREN XEDEA
DA ATZERRITIK
ETORRITAKO FAMILIEI
INTEGRAZIOA
BIDERATZEA**

bera da, hain zuzen, Andoaingo Udalaren nahia; eta, hori lortzeko, herrian bizi diren kultura guztien arteko elkar trukearen aldeko apustu sendoa egin du. Horrekin batera, une honetan, 20 bat familia ari dira programan parte hartzen. Modu horretan, akonpainamendu eta elkar ezagutzarako kulturarteko harremanak ari dira eraikitzen.

Aipatutakoaz gain, Usurbilgo Udalak hainbat urte daramatza herritarren jatorri aniztasunari hurbiletik jarraitzen. Haien jaiolera kontuan hartuta ontzen ditu neurketak; Usurbilgo biztanleak non jaiolak diren azaltzen du, bestelako zenbait aldagairekin batera. Nolanahi ere, azken urtean, jauzi kualitatiboa eman du. Usurbildar guztien arteko elkarbizitzarako gakoak bilatu eta bultzatu asmoz, udalerrriak jasotako bi migrazio olatu nagusiak izan ditu hizpide. Alde batetik, 1960/70eko urteetan Espainiatik etorritakoa; eta, beste alde batetik, 2000. urteaz geroztik munduko hainbat txokotatik iritsitakoa. Horren ostean, migrazioaren gaineko esperientziak eta diskurtsoak jaso ditu bi euskarritan: Aztiker Ikerguneak Udalaren eskariz egindako *Jatorri aniztasuna eta elkarbizitza Usurbilen* txostenean; eta, horren osagarri, *Migrazioari maskarak erauzten* ikus-entzunezkoan.

Hori gutxi balitz, jatorri aniztasunen festa antolatuta ohi du Udalak, urtero, Mundualdia izenburupean. Joan den urtean, egungo osasun egoera dela eta, ezinezkoa izan zen ospakizuna egitea; baina, aurretik, berriz ere heldu zioten ekimenari. Ezohiko formatuan izan zen, martxoaren 27an. Bertan aurkeztu zuten, hain justu ere, alde aurretik zehaztutako dokumentala.

Esanak esan, Buruntzaldeko gizartearen errealitatea da kultura-aniztasuna, eta herri guztietako udalek, norbanakoek, taldeek eta baita eragileek ere, indartsu heldu diote errokarari. Izan ere, egungo altxorra dela sinesten dute; eta, herritarren arteko arrakala handitzetik urrutituz, kultura guztiak besarkatzeko eta elkarbizitza osasuntsua lortzeko unea dela uste dute. Oraina aldatuz gero, etorkizuna hobe eta itxaropentsuagoa izango baita.

«Ulertu behar dugu, kanpotik datorrena ez datorrela bertakoei kalte egitera»

Urteak dira jatorri aniztasunaren azterketa egiten duela Usurbilgo Udalak, baina pauso bat gehiago eman nahi izan du aurretik: migrazioaren gaineko esperientziak eta diskurtsoak jaso ditu, eta *Migrazioari maskarak erauzten* dokumentala osatu du. Martxoaren 27an estreinatuta zuten Mundualdian, jatorri aniztasunaren jaialdian; eta orain, ikusgai dago sarean: *usurbil.eus* web orrian, eta Udalak YouTubean daukan kanalean.

Bi migrazio prozesuri erreparatu diete bertan: 1960-1970 artean Espainiatik etorritakoa, eta 2000 urteaz geroztik munduko hainbat txokotatik etorri direnari. Bigarren horretakoa da Lizzy Mejía Funezen esperientzia: Hondurasetik etorri zen Usurbilera, familiarekin, bizitza proiektu hobe baten bila. **Badira urte batzuk Hondurasetik etorri zinela, ezta?**

2014an etorri nintzen Usurbilera, 14 urte nituela. Ama hemen zegoen 3-4 urte lehenagotik, eta bi anaiekin etorri nintzen ni.

Atzerritar asko zineten herrian, orduan?

Ez, duela zazpi urte gutxi ginen kanpotik etorritakoak. Baina ordutik asko hazi da immigrazioa.


Zaila izan zen hasiera?

Bai eta ez. Lasarte-Orian ikasi behar izan nuen, ikasle etorri berriarentzako harrera programaren barruan. Nik nahiago nuen Usurbilen ikasi, jendea ezagutzeko. Baina gustura aritu nintzen, bazelako irakasle bat oso saiata. Euskara ikasi genezan nahi zuen, baina era berean, kezkatzen zen guregatik: eskolan ondo ari ote ginen, integrazioa ondo ote zijoan...

Lagun bat egin nuen Lasarte-Orian, baina garai hartan, Usurbilen ez nuen inor ezagutzen, eta antolatzen ziren ekintzetan ere ez nuen parte hartzen, harremanik ez izateagatik. Eskolaz kanpoko jarduerak asko laguntzen dute, haur baten integrazioan.

Eta noiz hasi zinen Usurbilgo jendea ezagutzen?

Lasarte-Orian ikasketak bukatuta, Donostiara joan



Duela zazpi urte etorri zen Lizzy Mejía Funez Hondurasetik Usurbilera, 14 urterekin.

nintzen batxilergoa ikastera, gaztelaniaz. Euskaraz egitea gustatuko zitzaizkeen, baina oraindik ez nengoen prest horretarako. Eta Donostian egin nuen topo Usurbilgo neska batekin. Zunba ikastarotik ezagutzen genuen elkar, baina ez genuen harremanik izan; eta Donostian lagun egin ginen. Eta bere bitartez, hasi nintzen Usurbilgo jende gehiago ezagutzen, herrian gehiago ateratzen, afaltzeko elkartzen... Hori baino lehen, familiarekin egiten nuen bizitza, paseatu, mendira joan... Baina ez nintzen Artzabalen esertzen trago bat hartzera. Ez nintzen gai sentitzen horretarako.

Zertan lagundu zizun horrek?

Jende asko ezagutzen, eta jardueretan parte hartzen. Hortik aurrera, indartsuago eta seguruago sentitu nintzen, toki ezberdinetara joateko. Ahaldundu egin ninduen, herrian pertsona bat izateak jendearekin esango ziona: begira, hau Lizzy da, nire laguna. Horrek erraztu egin zidan bidea. Eta adinak ere bai. Orain 21 urte dauzkat, eta ez daukat lotsarik jendearengana joan eta nire burua aurkezteko. Beste lagun bat ere badaukat, Hodei; eta ezagutu nuen niregana gerturatu zelako Mundualdian, Usurbilgo kultura aniztasunaren egunean. Eta beraren bitartez ezagutu ditut beste hainbat.

Aurrerapausoak eman dira azkeneko urteotan, integrazioaren bidean?

2014tik hona bai, aurrerapauso dextente. Eta ez bakarrik Europatik kanpo gatozen herritarrekiko; baita Estatu osotik etorri izan direnekiko ere. 'Migrazioari maskarak erauzten' dokumentalarekin garbi ikusi da hori. Asmoa izan da ezagutaraztea zein garen pertsona horiek, Usurbilen bizi garenak baina ikusgarritasun handirik ez daukagunak; eta horrekin batera, estigmak hautsi eta kultura-aniztasuneko elkarbizitza sustatzea herrian.

Eta lagundu du horretan?

Oraindik goiz da esateko, baina baietz uste dut. Ez da gauza bera norbait zuregana gerturatu eta bere istorioa kontatzea, edo dokumental baten bitartez jende askorengana iristea hori. Horren bitartez iritsi gara ezagutzera, adibidez, nor den ondoko bizilaguna, inoiz hitz egitera gelditu ez garena.

Herri txikietan errazagoa izan daiteke integrazioa?

Herria nolakoa den arabera, errazagoa izan daiteke integrazioa, bai. Herri txikietan, errazago ezagutu dezakezu jendea, talde txikiak izaten direlako. Hirietan, anonimoagoa da pertsona bakoitza, eta etxebizitza bateko bizilagunek ere ez dute elkar ezagutzen.

Dokumentalean aipatu duzu, integratzaile tresna egokia izan daitekeela euskara.

Hala iruditzen zait. Euskara ez da gauza bat, euskaldunon

historiaren parte baizik. Nabaritu egiten dut, 'hola, buenos días' beharrean 'iepa, kaixo' esanez agurtzen baduzu norbait, alaitasunez hartzen zaituela. Errekonozimendu moduko bat da. Nik euskaraz oinarrikoa besterik ez dakit, baina maitasun handia diot, daukan alde emozional hori transmititu didatelako. Eta baita zure hizkuntzan ezin hitz egitearen mina ere. Oso gogorra izan behar da, zarena izaten debekatzea; azken finean, euskaldunon izaeraren parte delako euskara. Jendea batzen du euskarak, eta euskaraz jakiteak horren parte egiten zaitu.

Orain gehiago hartzen duzu parte jardueretan?

Parte hartzen dut, eta bilatu egiten ditut, gainera. Interesatzen zait jakitea zer dagoen eta zer gertatzen den herrian. Noaua! aldizkaria, lehen, gainetik begiratzen nuen, ez nuelako ulertzen. Baina orain lasai irakurtzen dut, herriaren berri izateko.

Etorri berriei harrera egokia izateko, zer da ezinbestekoa?

Ulertzea kanpotik datorrena, ez datorrela bertakoei kalte egitera. Hona dator pertsona delako, bere eskubideak dauzkalako, eta bere bizikaltate hobetu nahi duelako. Beharrik dauzkaten pertsonak dira kanpotik etortzen direnak. Sistemak berak eta instituzioek, hainbat zailtasun ezartzen dizkigute: Atzerritartasun Legea, errolda, lan kontratu baten beharra legezkoa izateko eta osasungintzara eta hezkuntzara sarbidea izateko... Eta etorri berriarekiko aurreiritziak baldin badauzkagu, eta pentsatzen badugu lanpostua kenduko digula, lapurreta egin, herria kutsatu... Horrek guztiak zaildu egiten du integrazioa. Denak gara pertsonak, eta immigrazioa gizartearen txertatuta dago, bere ezaugarrietako bat da. Enpatia behar dugu, eta interesa izan jendea ezagutzeko, eta baita besteek gu ezagutzeko ere. Hori funtsezkoa da, herri inklusiboa izateko.

Ainhoa Martin, garaile Gijongo Hiria sarian

Ainhoa Martinek 400 metro lau estilo proban egindako markarekin lortu du garaikurra. Gipuzkoako selekzioak talde onenaren saria jaso du. Bestalde, Europako txapelketari amaiera ederra eman dio Nahia Zudairek, Espainiako errekorra erdietsiz

Txintxarri

Gijongo Hiria Nazioarteko Txapelketa jokatu da maiatzaren 22an eta 23an, Gijongo Santa Olaya igeriketa klubean, eta Bidasoa XXI taldean dagoen Ainhoa Martin igerilari gazteak eta Gipuzkoako selekzioak jaso dute garaikurra. Leire Martinek eta Buruntzaldea IKTko Aintzane Sarobek eta Nora Imazek ere parte hartu zuten sarian Gipuzkoako selekzioarekin.

Ainhoa Martinek lehiaketa paregabea egin zuen asteburu osoan zehar. Lasarte-Oriako igerilariak guztira sei proba egin zituen txapelketa honetan eta guztietan finaleraino iritsi zen.

200 metro bular probako markarekin, 2:32,71, lehen postuetan jarri zen larunbateko jardunaldia amaitzean eta igandean, 400 metro lau estilo proban egindako markarekin lortu zuen garaipena.

Probako finalean, lehena izan zen, 4:49,41 markari esker. Bere marka pertsonala ontzeaz gain, 779 FINA puntu lortu zituen eta sailkapeneko buru jarri zen.



Leire eta Ainhoa Martin, Espainiako txapelketan eskuratutako dominekin. BIDASOA XXI

Gainerako probetan ere lehen postuetan sailkatu zen Ainhoa. 50 m., 100 m. eta 200 m. bular eta 200 m. lau estilo proben buru izan zen eta 50 m. tximeletan laugarren postuan sailkatu zen.

Puntuak batzen

Bere taldekide eta ahizpa Leire Martinek bost proba lehiatu

zituen eta bostetako finaletan aritu zen. 50 m. bizkar proban, hirugarren izan zen; 200 m. estilo proban, laugarren; 200 m. libre eta 200 m. bizkar probetan, bosgarren; eta seigarren amaitu zuen 100 m. bizkar proba.

Martin ahizpez gain, Buruntzaldea IKTko bi igerilari izan ziren Santa Olaya igeriketa

klubeko uretan igerian, Aintzane Sarobe eta Nora Imaz.

Sarobek lau proba lehiatu zituen. 50 m. tximeleta proban 31,58 marka lortu zuen eta 50 m., 100 m. eta 200 m. libre probetan 28,67, 1:01,96 eta 2:17,23 kronoak egin zituen, hurrenez hurren.

Imazek, berriz, 100 m. (1:04) eta 400 m. (4:55,24) libre probetan lehiatu zen.

Lau igerilariak eta Gipuzkoako selekzioak gainontzeko kideek 39.787 puntu batu zituzten guztira, eta taldekako txapelketa irabazi zuten.

Euskal Herriko txapelketa

Bestalde, asteburuan, Euskal Herriko selekzioen arteko txapelketa ere burutu zen, Gasteizko Mendizorrotza igerilekuan, eta Gipuzkoa laugarren izan zen. Buruntzaldea IKTko Garazi Etxeberriak, Eneko Elizasuk eta Unai G. Somovillak haien aletxoak jarri zuten txapelketa horretan.

Etxeberriak proba azkarretan parte hartu zuen, 50 m. (27,95) eta 100 m. libre probetan (1:02,26).

400 m. eta 1.500 metroko iraupen-erdi eta luzeko probetan lehiatu zen Elizasu. 4:22,87 eta 17:29,96 markak egin zituen.

Somovillak, berriz, aurreikusiak zituen hiru probetatik bakarrean parte hartu zuen. 50 m. bular proban 33,28 segundoko denbora egin zuen.

Errekorrekin jarraitu

Buruntzaldea IKTko Nahia Zudairek, bestalde, era ederrean

amaitu zuen Funchal hirian, Madeiran (Portugal) antolatutako Europako Txapelketa. Markak ontzeaz gain, Espainiako errekor berri bat ere ezarri zuen.

Maiatzaren 20an, ostegunean, 50 m. libreko probarekin ere ausartu zen igerilari gaztea. 33,21 marka eginez, bosgarren postua eskuratu zuen, eta bere marka pertsonala hobetu zuen.

Ostiralean, berriz, txapelketari amaiera emateko 200 metro lau estiloak proba lehiatu zuen.

Igerilari gaztea laugarren izan zen finalean. 3:02,58 marka egin zuen eta horri esker, Espainiako errekor berria poltsikoratu du. Horrez gain, 50 m. tximeletako pasean marka pertsonal berria lortu du.

Buruntzaldea Saria

Asteburu honetan, Buruntzaldea IKTko igerilariak hitzordu berezia izango dute, Buruntzaldeako saria.

Lehiaketa Andoaingo Allurralde kiroldegian jokatu da larunbat arratsaldean. Buruntzaldea IKTko igerilariak gain, Fortuna KEko zein Hernani KEko kirolariak izango dira lehian.

Buruntzaldeako saria Gipuzkoako Federazioak antolatutako trofeo jardunaldiko hitzorduetako bat da.

ESPAINIAKO MARKA BERRIA FINKATU DU ZUDAIREK EUROPAKO TXAPELKETAKO AZKEN PROBAN

Furundarena eta Gonzalez, ederki BAT taldearekin

Furundarenak Espainiako Txapelketarako txartela lortu du jauzi hirukoitzeko proban

Txintxarri

Ostadar Atletismo saileko kideak Bidasoa Atletiko Taldearekin lehian izan dira azken bi asteburuetan eta lan ederra egin dute. Maiatzaren 15ean Naroa Furundarenak Espainiako Klubeko Iberdrola Ligan parte hartu zuen, Zaragozan; maiatzaren 22an, berriz, 20 urtez azpiko Kluben arteko Espainiako txapelketan lehiatu zen Enara Gonzalez, Albaceten.

Furundarena luzera-jauzia eta jauzi hirukoitza probetako jardun zen.

Lehen proban hirugarren izan zen. 5,86 metroko jauzia egin zuen eta bere marka pertsonala ondu zuen.

Jauzi hirukoitzean ere marka pertsonal berria ezarri zuen herritarrak, baita Espainiako txapelketarako gutxienekoa lortu ere. 12,70 metroko jauziarekin bigarren postua eskuratu zuen.

Gonzalezek ere luzera-jauziko proban parte hartu zuen Albaceten. Bere marka hobetzen zuen 5,55 metroko jauzia egin bazuen ere, momentuan zegoen gehiegizko haizeak bertan behera utzi zuen marka eta 5,38 metroko jauziarekin konformatu behar izan zen.

Hala ere, Ostadar Atletismo saileko arduradun Oscar Goikoetxeak adierazi duenez, pozik daude Gonzalezek egindako lehiaketarekin.

Bi sailkatu

Horrez gain, Naroa Furundarenak egindako markak ekainean Getafen antolatutako den Espainiako txapelketan Ostadarreko bi kide egotea



Rekondo, Gonzalez eta Furundarena atletak. OSTADAR ATLETISMO

ahalbidetu duela nabarmendu du atletismo taldeko prestatzaileak. Furundarenarekin batera, Mainer Rekondo ere

izango da bertan. Oraingoan, biek proba bakarrik lehiatuko dute: Furundarenak, jauzi hirukoitza; eta Rekondok, pisu proba.

Baina pasa den asteburuan Donostian jokatu zen kontrol proban, Rekondok 43,68 metroko jaurtiketa egin zuen diska proban bere marka pertsonala onduz.

Marka hori Gipuzkoako hirugarren markarik onena eta aurtengo Espainiako rankingeko bederatzigarrena da. Beraz, Espainiako Txapelketako sailkapena lortu dezake proba honetan ere.

Txapelketa hori prestatzeko, asteburu honetan, hitzordu garrantzitsua dute Ostadarreko atletak, Gipuzkoako Txapelketa.

Jubenilen Ohorezkoak, ezin helburua lortu

Nahiz eta Hernani 8-0 garaitu, Antxon Navarrok zuzentzen duen taldeak ez du txapelaren ligarako sailkapena lortu. Ostadar SKTko Erregional mailako taldea ere kopako lehiatik kanpo geratu da final laurdenean; Mariño 7-0 gailendu zaie

Txintxarri

Ostadar SKTko Jubenilen Ohorezko mailako taldeak ederki amaitu du denboraldia. Nagusitasunez 8-0 garaitu zuen Hernani, baina ezin izan du txapelketako helburua lortu.

Partida hasi baino lehen, taldeak minduta dagoen Del Puerto jokalaria taldekide guztiek sinatutako elastikoa oparitu zion.

Garaipenaren bila atera ziren Antxon Navaroren jokalaria. Hamabosgarren minutura arte, ordea, ezin izan zuen Ostadar SKTko arerioaren atea zulatu. Korner batean izan zen.

Ostean, erraz iritsi zen. Areaz kanpoko jaurtiketa eskuadratik, erdiraketa eta errematea eta area barruko errematea. 4-0arekin iritsi ziren atsedendira.

Bigarren zatia, lehenaren antzera joan zen. Kosta egin zitzaion baloiari sartzea. 55. minutuan lostu zuen talde urdin-beltzak bosgarrena, hegaleko pase baten osteko erremate batekin. Seigarren gola ere antzekoa izan zen.

Nahiz eta 6 eta 0koa markagailuan egon Ostadar SKTko taldeak erasoan jarraitu zuen eta partida amaitzeko zegoela azken bi golak lortu zituen; bata, atezaina driblatuta, eta bestea, erdiraketa bat sareratuta.



Ostadar SKTko Jubenilen Ohorezko mailako taldearen erasoaldi bat. TXINTXARRI

Hiru puntuak etxean geratu arren, Jubenilen Ohorezko mailako taldea bere multzoko bigarren postuan sailkatu da 17 punturekin, eta txapelaren fasetik kanpo geratu da. Antxon Navarro entrenatzaileak azaldu digunez, "lehengo astean berdinketa lortu genuen, eta nahiz eta aste honetan puntuak lortu, ez gara sailkatu".

Ezin aurrera egin

Bestalde, Ostadar SKTko Erregional ohorezko mailako taldeak kopako final-laurdena jokatu zuen Mariñoren aurka, eta kopa altxatzeko lehiatik kanpo geratu zen; 7-0 galdu zuen. Orain, lehiaketako bosgarren eta

zortzigarren postuak zehazteko partidak jokatuko ditu. Lehena Urrietaren aurka izango da.

Infantilen deialdia

Ostadar SKT 2021-22 denboraldia prestatzen hasi da. Hori dela eta, hurrengo astean futboleko infantil mailako (2008/09) jokalarientzat entrenamendu irekiak antolatu ditu, hau da, agertzen diren infantil mailako jokalariekin hurrengo denboraldiko taldeak osatzea da helburua.

Maiatzaren 31n, ekainaren 2an eta 4an, 17:30etik 19:00etara, izango dira saioak. Deialdira entrenatzeko arroparekin agertu behar da, oraindik aldagelak ezin baitira erabili.

Ostadar SKTki kirol diziplina ezberdinen izen-ematea ireki du

Ekainaren 18ra arte inskribatu ahalko dira elkarteko talderen bateko kide izan nahi duten herritarrek

Txintxarri

Ostadar SKTko sail ezberdinak hurrengo denboraldia prestatzen hasi dira. Horregatik, ekaineko lehen egunean 2021-22 denboraldiko izen-ematea zabalduko dute hainbat sailetan: kirol egokitua eta inklusiboan, saskibaloian, boleibolean, atletismoan, errugbian eta futbolean.

Izen-ematea elkarteko webgunean, www.ostadarskt.eus, eskuragarri dagoen formularioaren bitartez egingo da. Inskribatzeko azken eguna ekainaren 18a da, ostirala.

Ostadar SKTko arduradunek adierazi dutenez, "aurrerago, taldeak osatuta daudenean", sail ezberdinetako entrenatzaile edo koordinatzaileak harremanetan jarriko dira izena eman duten guztiekin dagozkien azalpenak (taldeak, ordutegiak...) eskaintzeko.

Era berean, edozein zalantza argitzeako, Geltoki kalea 25ean dagoen Ostadar STKko bulegora ere jo daitekeela jakitera eman dute. Bulegoa astelehenetik ostiralera dago irekia, 17:00etatik 19:00etara.



OSTADAR IPAR MARTXA

Txaldatxurreko lubakiei bisita

Ostadar Ipar Martxako kideek euren jardunarekin jarraitzen dute. Hilabete honetan, Txaldatxurreko lubakietara irteera egin dute. Txangoa maiatzaren 23an, larunbatean izan behar bazuen ere, eguraldiarengatik, igandera atzeratu zuten hitzordua. Eguraldi ederrarekin, Lasarte-Oriatik atera eta lubakietarako bidea egin zuten joan-etorrian. Taldekide gutxi animatu arren, ederki gozatu zuten hiru orduko ibilaldiaz.

Ostadar Boleibola taldeak bigarren amaitu du txapelketa

Talde urdin-beltzak Hernani 3-1 garaituz eman dio amaiera Gipuzkoako Txapelketari

Txintxarri

Ostadar Boleibol taldeak Gipuzkoako txapelketako azken jardunaldia jokatu zuen maiatzaren 23an, Maialen Chourraut kiroldegian. Aurrean Hernani izan zuen, eta Asier

Acuriolak prestatzen duen taldeak 3-1 irabazi zuen.

Bigarren postua eskuratzeko lehian, puntutan berdinduta zeuden hainbat talde, eta horietako bi ziren Ostadar eta Hernani.

Denboraldi ederrari amaiera emateko, talde urdin-beltzeko jokalariek garaipena zuten buruan, eta ederki egin zuten lan: 25-19, 25-20, 20-25 eta 25-13 irabazi zuten.

Era horretara, hamalau punturekin, sailkapeneko bigarren postua eskuratu du Ostadar Boleibola taldeak. Guztira, sei garaipen lortu eta bi partida bakarrik galdu ditu Acuriolak zuzentzen duen taldeak; biak, sailkapeneko buru izan den Fortuna Aren aurka.



Ostadar eta Hernaniren aurkako partidako irudia. OSTADAR BOLEIBOLA

Hernanik, Durangoren aurkako partida gogorra

Paola Vega herritarren kide duen Euskal Ligako taldea menderaezina da denboraldi honetan. Txapelketa amaitzeko bi partida faltan, Hernani CRE sailkapeneko buru da. Vegak joko-zabaltzaile lana egin behar izan du, eta entsegu bat ere lortu du

Txintxarri

Maiatzaren 23an, igandean, partida borrokatua jokatu zuen Hernani CRTk Durango Nissan Gaurisa taldearen aurka. Paola Vega herritarra kide den taldea 38-36 gailendu zen.

Gaizki hasi zen partida. Lehen minutuetan, arerioak entsegu bat egin eta jokalarri garrantzitsua galdu zuen Hernanik min hartuta, joko-zabaltzailea. Ongi egin zion aurre Hernanik egoerari eta hegaletik alde egin ostean, Paola Vega herritarrak entsegua egin zuen.

Joko biziarekin Hernanik beste bi entsegu lortu zituen eta lehen zatia amaitzerako 19-5 zegoen aurretik.

Durangok, ordea, ez zuen amore eman, eta jokoaren kontrolarekin egin zen bigarren zatian. Hutsuneak bilatu eta min egin zion Hernaniko taldeari, hainbat entsegu lortu eta aurretik jarrita.

Hirugarren zatian, presio lan handia egin zuen Hernanik. Erasoan ere fin ibili zen. Ez zituzten indarrak atera eta Vega herritarraren zuzendaritzapean, joko-zabaltzaile lana egin zuen, partida berdindu zuten Hernaniko jokalariek.

Azken entseguko jaurtiketak Hernaniko taldearen alde jarri zuen markagailua.



Paola Vega (goiko lerroan, bigarrena ezkerretik) eta taldekideak, partida ostean. HERNANI CRE

Liga amaitzeko bi jardunaldiren faltan, Paola Vega kide duen taldea sailkapeneko lehena da; ez du partidarik galdu. Arerio gogorrak ditu aurretik: ekainaren 5-6ko asteburuan, Eibar RT, eta ekainaren 12-13an, Ordizia RT.

Liga amaitu ostean ere lanean jarraituko dute. Denboraldiari amaiera emateko, ekainaren 26an, La Unicaren aurkako torneoa jokatu du Hernaniko taldeak.

Minutuak zelaian

Alex Saleta Aviron Bayonnaisen espoir edo etorkizuneko taldean

lanean ari da eta fruitua jasotzen ari da, minutuak jokatzea. Maiatzaren 16an, Aviron Bayonnaisek ligako buru den State Francaise izan zuen aurrez aurre. Baionako taldeak 30-14 galdu zuen, Parisen jokatu zen partidari. Saletak partida osoa jokatu zuen eta entsegu bat ere egin zuen.

Bestalde, Jon Ibisate herritarra igandean jokatzen den Ohorezko mailako Alcobendas-VARC Quesos Entrepinares finalean izango da epaile. Zehazki, marrazain lanak egingo ditu.



Hipodromoak udako denboraldiari irekiko dizkio ateak. TXINTXARRI

Ekainaren 3an udako denboraldia iritsiko da

Ekainetik irailera arte, hamabost jardunaldiko denboraldia izango da Donostiako Hipodromoan

Txintxarri

Lasarte-Oriako zaldi zaletuek Donostiako Hipodromoko udako denboraldiaz gozatu ahaliko dute ekainaren 3tik aurrera.

Maiatzaren 10ean Espainiako Jockey Klubak onartutako egutegiaren arabera, hamabost jardunaldi izango ditu Hipodromoko udaldiko denboraldiak. Ondo bidean, ostegunean hasi eta irailaren 5ean amaituko dira lasterketak.

Hiru urtetako zaldiko eta behorrei zuzendutako Barilone sariak emango dio hasiera denboraldiari.

Hockey gazte eta hasiberrientzako Suances saria edo Handicapeko bi lasterketa ere ikusi ahaliko dira, Persian Ruler eta Chacal sariak izango dira. Jardunaldiari amaiera emateko hiru urte baino gehiagoko zaldi eta behorrek lehiatuko dira Principe Duero sarian.

Jardunaldi hau eta ekaineko gainerako hiruak (9, 16 eta 23) goizez eta astean zehar jokatuko dira. Lehena ostegunean izango da; beste hiruak, berriz, asteazkenetan.

Astebururo hitzordua

Uztailatik irailera astero izango dira jardunaldiak. Horiek guztiak, berriz, asteburuetan eta arratsaldetan jokatuko dira, abuztuaren 11ko saioa izan ezik.

Uztailaren hiru saio larunbatean izango dira (10, 17 eta 31) eta beste bi igandetan (4 eta 25).

Abuztuaren 15ean, igandez, ohi bezala, Urrezko Kopa jokatuko da. Hilabete horretan beste lau saio ere izango dira hiru igandetan (8, 22 eta 29) eta bestea astean zehar (11, asteartea).

Irailaren 5ean, igandean, denboraldiari agur esango dio Hipodromoak, Donostiako Sari Nagusiarekin.

Hondarribia, hirugarren Gipuzkoako trainerilla lehian

Intza Fernandez herritarra Hondarribia Bertako Ilogailuak taldearekin lehiatu da txapelketan

Txintxarri

Eusko Label eta Euskotren ligako traineruak denboraldi-aurrean ari dira lanean. Eskifaietako batzuk trainerilla ligaz baliatzen dira ongi prestatu eta ligara euren puntu onenean iristeko.

Gipuzkoako liga maiatzean jokatu da eta hilaren 16an amaitu zen, Gipuzkoako Txapelketarekin.

Hondarribia Bertako Ilogailuak eta talde horretako kide den Intza Fernandez herritarrak Gipuzkoako hirugarren postua

eskuratu zuten Getarian lehiatu zen jardunaldian. Gipuzkoako txapela Kaiarriba-Donostiarrak eskuratu zuen, eta bigarren Orio izan zen.

Egun bat lehenago, maiatzaren 15ean, jokatutako sailkapen saioan hiru eskifaia horiek izan ziren lehen postuetan, beste behin ere.

Nahiz eta sailkatuta egon, Hondarribiako eskifaia ez zuen maiatzaren 23an jokatu den Euskadiko Txapelketan parte hartu.



Intza Fernandez (eskuinetik, lehena), Hondarribiko eskifaiarekin. HONDARRIBIA AE

ZORION AGURRAK



Ane
Zorionak printzesa zure 7. urtebetetzean. Asko maite zaitugu aitak eta amak, eta muxu asko familiaren partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Zure erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
- Bidali zure zorion agurra formularioa bete.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak.



Jaio da!

Eman jaiotzen berri
TXINTXARRI-n.
Deitu 943 37 14 48 telefonora,
bidali hauraren izen-abizenak eta
jaiotze data txintxarri@ttakun.eus
helbide elektronikora edo
688 68 35 10 WhatsApp
zenbakira

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 28 GIL
LARUNBATA, 29 GANDARIAS-URIBE
IGANDEA, 30 GANDARIAS-URIBE
ASTELEHENA, 31 DE ORUE
ASTEARTEA, 1 URBISTONDO
AZTEAZKENA, 2 GANDARIAS-URIBE
OSTEGUNA, 3 ACHA-ORBEA


EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani. 943 55 17 93


URTE OSOKO GUARDIAK APP-A eskuragarri app store edo android marketen
Informazio gehiago www.cfgipuzkoa.com orrialdean eskuragarri.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 28




Larunbata, 29




Igandea, 30




Astelehena, 31




Asteartea, 1



Asteazkena, 2



Osteguna, 3



SUDOKUA

5	4					7		1
		3	9	5	7			
						1		3
		1	7				5	4
2					5	6	1	
4		5	6	1				8
	9		2		4		8	
8		4	5	9	3			
3		2			6			

OHARRA

Urrezko ezteiak egin dituzten bazkideen izen-emate epea irekiko du Biyak Batek

Biyak Bat egoitzako zuzendaritzak jakinarazi duenez, maiatzaren 15etik irailaren 15era izena eman ahalko dute 2020ean edo 2021ean urrezko ezteiak egin dituzten elkarteko bazkideek. Bazkide-txartela eta familia-liburua erakutsi beharko dituzte inskripzioa egiterakoan.

Heriotzen berri eman

Ingurukoren baten heriotzaren berri TXINTXARRI aldizkarian *Heriotzak* atalean eman nahi baduzu, bidali zendutako pertsonaren, izen-abizenak eta heriotza data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

GUTUNAK

Aldundiak zeharo urratu duen Bizikleta Bideen Planaren metafora

EGUZKI

Donostia eta Mutriku bitartean bidegorri bat aurreikusten du Gipuzkoako Bizikleta Bideen Planak. Bidegorri horrek gaur egun guztiz bukatuta ez baina oso-oso aurreratuta egon beharko luke. Alabaina, norbait Donostian bidegorrian pedalei eragiten hasten bada Mutrikurantz... Usurbileraino baino ez da iritsiko, edo, hobeto esan, Luzuriagaraino. Izan ere, bidegorria Usurbilgo kaskoraino bertaraino iritsiko balitz, gaitz erdi; baina ez, Luzuriagaraino baino ez da iristen. Mutrikutik urruti, oso urruti. Eta, hala ere, han, Luzuriagan, orain dela gutxi arte kartel batek harro-harro iragartzen zuen: "Donostia-Mutriku bidegorria". Eusko Trenen lan batzuk egiten hasi zirela eta, kartela kendu egin zuten, baina lehengoan zoko batean baztertuta aurkitu eta argazki hau atera genuen. Foru Aldundiak hain modu nabarmenean urratu duen Bizikleta Bideen Planaren metafora dirudi. Eusko Treneko lanak bukatutakoan, kartela lehengo lekuan jartzeko eskatuko dugu, bertan egon dadin, bere xumean, bete gabeko aginduen monumentu salatzaile gisa.



AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Garaje marra alokatzen da Golf plazan, Landaberri-Garaikoetxea ikastolaren frentean. Zabala, sarbide erraza, ekonomikoa.

Harremanetarako zenbakia, 659 02 19 45.

Garaje bat alokatzen da Donostian, Antigua auzoko Iruña kalean. Harremanetarako zenbakia, 671 60 57 31.

LANA

ESKAINITZA

Zaintzailea behar da adineko bi pertsona zaintzeko, interna modura, osasun-bazkide ziurtatua, esperientzia eta adinekoak zaintzeko gomendioak dituen. Harremanetarako zenbakia, 685 70 44 40.

ESKARIA

Pertsona eskaintzen da pertsona adinduen barneko zaintzaile modura lan egiteko. Orduka ere izan daiteke Erreferentzia onak

eta esperientzia du. Harremanetarako zenbakia, 622 747 833.

Pertsona eskaintzen da hainbat zereginetan lan egiteko: sukaldaritza laguntzaile, tabernan pintxoak egin, garbiketa lanak egin, pertsona adinduak zaindu edo etxeko lanak egin. Asteburuetan ere lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia, 643 80 37 87.

Pertsona eskaintzen da orduka etxe garbitu edo

pertsona adinduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prestutasuna. Harremanetarako zenbakia, 608 93 56 74.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... esperientzia handikoa eta profesionala garbiketetan. Harremanetarako zenbakia, 673 55 62 89.

Pertsona eskaintzen da etxeko garbiketa lanak egin, leihoak garbitu, adineko pertsonak

paseatzeko edo umeak zaintzeko. Orduka edo externa. Harremanetarako zenbakia, 619 35 58 19.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia, 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka,

gauetan edo ospitalean gauak egiteko prest. 634 27 81 98.

SALEROSKETA

SALDU

CITROEN C3 kotxe berria salgai. Urtebete soilik. 1.000 km egin gabe. Egoera pertsonalagatik saltzen dut. Harremanetarako zenbakia, 687 35 50 95.

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 200 euro. 646 824 466.

Bizikletari lotzeko erremolke doblea salgai. Interesik bazenu deitu lasai. Inungo konpromisorik gabe probatu daiteke. Eskiatzeko eta gerrian lotuta ibiltzeko ere balio du. Gurpilak eta eskiak barne. Oso ondo zaindua. 300 euro. Harremanetarako zenbakia, 670 20 78 14, Amaia.

ZOZKETA

Eñaut Elorrietaren kontzerturako sarrerak



TXINTXARRI

Ttakun Kultur elkarteak sariak zozkatzen ditu hilero izena ematen duten bazkideen artean. Hilabete honetan, Eñaut Elorrietak gaur, maiatzaren 28an eskainiko duen *Irteera argiak* emanaldirako bi sarrera banatu ditu. Zortekoa Leire Berasategi izan da. Bere amak Karmen Ruizek jaso ditu sarrerak alabaren izenean. Ongi pasa kontzertuan!!!

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia.
12€
(BEZ barne)
publizitatea@
ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20€ (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.bintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administrataria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iratzi Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galarzi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzzaileak

Julene Iraola, Uxue Odriozola, Lide
Hidalgo, Egoitz Epelde, Erlantz
Ezeiza, Iker Lanchas, Iñigo Garcia,
Olatz Bardaji eta Igone Mendizabal.

Informatika zerbitzua

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.350 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 28

LASARTE-ORIA Musika

Eñaut Elorrieta abeslariak emanaldia eskainiko du hainbat musikariren laguntzaz. Sarrerak agortuta. Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Hilabeteko azken ostirala izanik, Lasarte-Oriako Sarek "Azken ostirala" ekimena antolatu du. Elizartetik irten eta Okendora joango den mobilizazioan euskal presoaren egoera salatuko dute. Amaieran, Ibon Fernandez Iradiren egoera eta lekualdatzearen berri emango dute. Elizatze plaza, 20:00etan.

ANDOAIN Ikuszkirus

Zaragozako Capicua taldeak *Koselig* ikuszkizuna eskainiko du. Zirkuz, antzerkia, umoreaz eta magia betetako saioa da. Sarrera, 5 euro. Ikuszkirus 2021 egitasmoko ekitaldia.

Bastero kulturunea, 19:00etan.

LARUNBATA 29

LASARTE-ORIA Tailerra

Auzoz auzoko tailerrak antolatu ditu Lasarte-Oriako Udalak. Horietako bat izango da elementu naturalekin estanpatzen ikasteko tailerra. Oria auzoa, Brunet parkea, 11:00etatik 13:30era.

LASARTE-ORIA Tailerra

Auzoz auzoko tailerren barruan,



LASARTE-ORIA Antzerkia. Eñaut Elorrietak *Irteera argiak* proiektuko doinuak eskainiko ditu. Artistak taularatuko duen emanaldia lehen aldiz eszenatoki batera igo zenetik gaur egunera arte izan duen bilakaeraren emaitza da. Bere bakarko bigarren lan honetan Elorrietak osatutako letraz gain zenbait idazleren hitzak ere musikatu ditu: Uxue Alberdi, Joseba Sarrionandia eta Jose Luis Otamendi, besteak beste. Lan disdiratsu bezain bare, eta heldu bezain fresko honek, kantua bera du oinarri eta obsesio, olatu batean garamatzaten melodiak eta hitz ederrak.

Manuel Lekuona kultur etxea, ostirala, 19:00etan.

ipu-kontalari saioa izango da. Euria egingo balu, Gaztelekuan egingo da egitasmoa. Sasoeta auzoa, Jaizkibel plaza, 12:00etatik 13:00etara.

LASARTE-ORIA Ikuszkizuna

Hodei magoak *Ezinezkoaren logika* ikuszkizuna eskainiko du. Sarrera, 3,80 euro.

Manuel Lekuona kultur etxea, 17:00etan.

ANDOAIN Ikuszkirus

Akelarre ikuszkizuna eskainiko du Zirkozaurre talde bilbotarrak. Euskal pertsonaia mitologikoak (Aker eta

sorginak), sua, musika, pirueta akrobatikoak eta joko malabareak nahasten ditu ikuszkizunak. Sarrera, 5 euro. Ikuszkirus 2021 egitasmoko ekitaldia.

Bastero kulturunea, 19:00etan.

IGANDEA 30

ANDOAIN Ikuszkirus

Kataluniako La Tal taldeak *Carillo* ikuszkizuna eskainiko du. Zaldunek eta pailazoek eszenatokia beteko dute; magia eta ezustekoak izango dira nagusi. Sarrera, 5 euro. Ikuszkirus 2021 egitasmoko ekitaldia.

Bastero kulturunea, 19:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Una joven prometedora
Igandea: 19:00.

ANDOAIN

BASTERO

Maya Erlea. Ezti jokoak
Larunbata: 12:00.

Paddington 2
Igandea: 12:00.

Aquellos que desean mi muerte
Larunbata: 19:30.
Igandea: 19:30.
Astelehena: 19:30.

ASTIGARRAGA


ERRIBERA

Dardara
Larunbata: 19:00.

HERNANI

BITERI

Una pasteleria en Notting Hill
Larunbata: 19:00
Igandea: 19:00.
Astelehena: 16:30.



LABURPENA

Una joven prometedora

Zuzendaritza eta gidioia: Emerald Fennell. **Argazkia:** Benjamin Kracun. **Musika:** Anthony B. Willis. **Herr.:** Erresuma Batua (2020). **Antzezleak:** Carey Mulligan, Bo Burnham, Alison Brie, Connie Britton, Jennifer Coolidge, Adam Brody, Laverne Cox, Clancy Brown, Angela Zhou, Christopher Mintz-Plasse, Alfred Molina, Molly Shannon, Sam Richardson, Steve Monroe, Casey Adams. **Iraupena:** 113 minutu.

Iragana konpontzeko aukera berria

Una joven prometedora filma ikusteko aukera izango da helduen zinema atalean.

Emerald Fenell aktore, gidoilari eta zuzendariaren filmak drama, komedia eta thriller nahasten ditu.

Cassiek (Carey Mulligan) etorkizun paregabea zuen aurretik, ikasle fina zen eta mediku paregabea izateko bidean zen. Baina ezusteko desatsegin baten ondorioz bere ikasketak uzten ditu. Egun bere bizitza ez da dirudiena. Argia eta kementsua da eta gaez bizitza bikoitza du.

Iraganeko ezagun batekin topatu eta Cassiek gertatutako konpontzea erabakitzen du. Errudunak ez dira lasai-lasai biziko.

Una joven prometedora filmak Sundance film jaialdian aurkeztu zen eta kritikariek harrera ona egin zioten. Hori dela eta, nazioarteko hainbat sari eta hautagaitza lortu ditu. Hala nola, BAFTA sarietan Erresuma Batuko film onenaren eta jatorrizko gidoi onenaren saria lortu zuten; Oscar sarietan ere gidioa saritua izan zen.

Ezinezkoa errealitate bihurtu daiteke

Ezinezkoaren logika ikuszkizunean magia gozatzeko aukera izango da, larunbata arratsaldean, 17:00etatik aurrera, Manuel Lekuona kultur etxean

Hodei magoak bere ikuskizun berria aurkeztuko du Lasarte-Orian. Formatu handiko lehen lan honetan hainbat urtetan bildu dituen joku aukeraketa originala erakutsiko du. Era horretara, magia klasikoak eta modernoak bat egingo dute familiako kide guztiei zuzendutako emanaldian.

Ezinezkoaren logika ikuszkizunean arau bakarra dago, hau da, ez dagoela ezer lortu ezinezkorik. Ordubeteko gehiagoz "ezinezkoa egia bihurtu daiteke".

Argia, kea eta musika lagun, Hodeiek eritimoaz eta inork axolagabe utziko ez duen umoreaz joko ezberdinak taularatuko ditu. Ezinezko ihesak, hainbat zatitan moztzen diren gorputz atalak, asmaketa imajinaezinak eta publiko osoak parte hartuko duen joku handia ere izango dira Manuel Lekuona kultur etxeko aretoan.



Patata-tortillak badu jabea

TXINTXARRI aldizkariak Lasarte-Oriaren gaineko galdera sorta batekin egin du maiatzeko lehiaketa. Maiatzaren 17tik 23ra bitarte parte hartu ahal izan dute herritarrek aldizkariaren web atarian. Hamar galderak ondo erantzun dituztenen artean, Irati Iribar izan da saritua

Txintxarri

Ehun irakurle baino gehiago izan zarete Lasarte-Oriari buruzko hamar galdera erantzutearen erronka burutu duzuenak. Zehazki, *Zenbat dakizu herriaz?* lehiaketan 136 irakurlek parte hartu duzue, eta horietatik 38k asmatu dituzue prestatutako galdera guztiak. Hamarrak asmatu dituzuenen artean, Jalgi Kafe Antzokiko patata-tortilla zozkatu du, eta

Irati Iribar izan da irabazlea. Parte-hartze hutsak ere izan zezakeen saria: Guggenheim museora joateko bi sarrera. Horiek Iñaki Letamendik poltsikoratu ditu. Zorionak bioi, eta gozatu ditzazuela sariak! Eta zuei, parte-hartzaile guztiei, eskerrrik asko!

Datorren hilabeterako, ekainerako, lehiaketa prestatzen ari da TXINTXARRI aldizkaria. Adi, datozen egunetan iragarriko baitugu!



Nagore, Gari eta Irati, Jalgiko saria jasotzen. TXINTXARRI

Zenbat dakizu herriaz?

lehiaketa

Hamarretik hamar asmatu ez dituzuenontzat, erantzun zuzenen zerrenda prestatu dugu:

1. Zenbat urte ditu Porrotzek? 57 urte.
2. Zein doinu jotzen dute San Pedro elizako kanpaiek 15:00etan? Pello Joxepe.
3. Nola izena du Lasarte-Oriako mendi tontorrak? Benedika.
4. Noiz eratu zen Lasarte-Oriako udalderria? 1986. urtean.
5. Herriko zein auzotan dago eskultura hau? Atsobakarren.
6. TXINTXARRI aldizkariak zein urtetan argitaratu zuen lehen zenbakia? 1993ko urriaren 1ean.
7. Nola izena du herriko kiroldegia? Maialen Chourraut.
8. Zenbat urtez izan zen alkate Ana Urchuegia? 24 urtez.
9. Nola izena du Hilotz taldeko abeslariak? Mikel Yarza.
10. Nola izena du herriko plaza nagusienak? Okendo plaza.

600 857 586
www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com
(on-line denda)

BOTILA HOTZGAILUA LED argiekin

Udaberrirako eskaintzak!

ARTISAUTZA SABAI-LANPARA PERTSONALIZATUAK

Neurri eta koloreak aukeran

ARGI ERAMANGARRIA

Lorategi edo terrazarako.
USB kargagarria

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21

21/22 DENBORALDIRAKO IZEN-EMATEAK: Ekainaren 1etik 18ra

atletismoa

boleibola

egokitua eta inklusiboa

futbola

saskibaloia

errugbia

Informazioa: 943 36 04 33 | Geltoki kalea, 25 | www.ostadarskt.eus